



ESTADISTIKA
ORGANO
ORGANO
ESTADÍSTICO

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LURRALDE PLANGINTZA,
ETXEBIZITZA
ETA GARRAIO SAILA
*Zerbitzu Zuzendaritza
Estatistika Organo Berezia*

DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN
TERRITORIAL, VIVIENDA
Y TRANSPORTES
*Dirección de Servicios
Órgano Estadístico Específico*

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA



**ERAIKUNTZARI ETA
ETXEBIZITZARI BURUZKO
ESTADISTIKA (EEEE)**

Emaitza nagusiak

2023ko 3. hiruhilekoa

*Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko
Estatistika Organo Berezia*



ERAIKUNTZARI ETA ETXEBIZITZARI BURUZKO ESTADISTIKA 2023ko 3. hiruhilekoa

Emitza nagusiak

AURKIBIDEA

1. OBRA HANDIKO LIZENTZIAK	3
2. EMANDAKO OBRA HANDIKO LIZENTZIEN ERABILERA	9
3. AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZAK, EMANDAKO OBRA HANDIKO LIZENTZIEN ARABERA.....	13
4. ALDERDI METODOLOGIKOAK	18

TAULEN AURKIBIDEA

1. Taula	Obra handiko lizentzien kopurua, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2023ko 3. hiruhilekoa .	4
2. Taula	Obra handiko lizentzien kopurua, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2023ko 3. Hiruhilekoan metatutako urteko datuak	6
3. Taula	Obra handiko lizentziak, obraren helburuaren arabera. 2023ko 3. hiruhilekoa	9
4. Taula	Obra handiko lizentziak, obraren helburuaren arabera. 2023ko 3. hiruhilekoan metatutako urteko datuak	11
5. Taula	Aurreikusitako etxebizitzak, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2023ko 3. hiruhilekoa.....	13
6. Taula	Aurreikusitako etxebizitzak, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2023ko 3. hiruhilekoan metatutako urteko datuak	16

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1. Grafikoa	Obra handiko lizentzien kopurua, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2023ko 3. hiruhilekoa .	4
2. Grafikoa	Obra handiko lizentzien kopurua, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2023ko 3. hiruhilekoan metatutako urteko datuak	7
3. Grafikoa	Obra handiko lizentzien kopuruaren bilakaera, lurralde historikoaren eta hiruhilekoaren arabera. 1998-2023	8
4. Grafikoa	Obra handiko lizentziak, obraren helburuaren arabera. 2023ko 3. hiruhilekoa	10
5. Grafikoa	Obra handiko lizentziak, obraren helburuaren arabera. 2023ko 3. hiruhilekoan metatutako urteko datuak	12
6. Grafikoa	Aurreikusitako etxebizitzak, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2023ko 3. hiruhilekoa.....	14
7. Grafikoa	Aurreikusitako etxebizitzak, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2023ko 3. hiruhilekoan metatutako urteko datuak	17

Informazio gehiagorako:

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Estatistika Organo Espezifikoaren zerbitzu Zuzendaritza

Donostia / San Sebastián kalea, 101010 Vitoria-Gasteiz

Telefono zenbakia: +34-945-01 69 61; Fax: +34-945-01 98 56

Webgunea: www.euskadi.eus/estadisticas-vivienda

www.euskadi.eus/estadisticas-territoriales

www.euskadi.eus/r41-ovse110x/es/

E-maila: estadísticas-vivienda@euskadi.eus



1. OBRA HANDIKO LIZENTZIAK

Urteko hirugarren hiruhilekoan beherakada handia izan da Euskadin obra handiko lizentzietan. Bai hiruhileko konparazioan, bai urte artekoan.

Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistikak (EEEE) ematen duen informazioaren arabera, 2023ko hirugarren hiruhilekoan, **Euskal Autonomia Erkidegoko** (EAE) udalek obra handiko 741 lizentzia eman dituzte guztira. Horrek aurreko hiruhilekoan emandakoak baino 338 lizentzia gutxiago eman direla eta nahi du (-%31,3 termino erlatiboetan) eta 147 gutxiago (-%16,6) 2022ko hiruhileko berean emandakoak baino.

1. Taula Obra handiko lizentzien kopurua, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2023ko 3. hiruhilekoa

(Hiruhilekoko balio absolutuak eta ehuneko bertikalak. Aldakuntza absolutua eta portzentajekoa, aurreko hiruhilekoarekin eta aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta)

OBRA HANDIKO LIZENTZIAK		2023ko 3. hiruhilekoa		Aldakuntza aurreko hiruhilekoarekiko		Aldakuntza aurreko urteko hiruhileko berarekiko	
		Kopurua	%	Kopurua	Ald. %	Kopurua	Ald. %
Euskadi	Guztira	741	%100	-338	-%31,3	-147	-%16,6
	Eraikuntza berria	81	%10,9	-29	-%26,4	-33	-%28,9
	Birgaitzea	649	%87,6	-310	-%32,3	-108	-%14,3
	Eraispena	11	%1,5	1	%10,0	-6	-%35,3
Araba	Guztira	181	%100	-29	-%13,8	-19	-%9,5
	Eraikuntza berria	33	%18,2	2	%6,5	-3	-%8,3
	Birgaitzea	143	%79,0	-33	-%18,8	-17	-%10,6
	Eraispena	5	%2,8	2	%66,7	1	%25,0
Bizkaia	Guztira	386	%100	-160	-%29,3	-85	-%18,0
	Eraikuntza berria	29	%7,5	-23	-%44,2	-30	-%50,8
	Birgaitzea	352	%91,2	-138	-%28,2	-54	-%13,3
	Eraispena	5	%1,3	1	%25,0	-1	-%16,7
Gipuzkoa	Guztira	174	%100	-149	-%46,1	-43	-%19,8
	Eraikuntza berria	19	%10,9	-8	-%29,6	0	%0,0
	Birgaitzea	154	%88,5	-139	-%47,4	-37	-%19,4
	Eraispena	1	%0,6	-2	-%66,7	-6	-%85,7

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2023ko 3. hiruhilekoa



Lizentzia horien erdia baino gehiago (%52,1) Bizkaiko lurralde historikoan eman dira (386). Araban eta Gipuzkoan obra handiko lizentzien kopuru antzekoa eman da: 181 lizentzia (%24,4) Araban, eta 174 lizentzia (%23,5) Gipuzkoan.

2023ko bigarren hiruhilekoaren aldean, emandako lizentzien kopuruak behera egin du hiru lurraldeetan. Termino erlatiboetan, nabarmentzekoa da Gipuzkoan izandako beherakada (-%46,1), hirugarren hiruhileko honetan bigarreanean baino 149 lizentzia gutxiago eman baitira. Bizkaian 160 lizentzia eman dira (-%29,3); Araban 29 (-%13,8).


Urtetik urtera, hiru lurraldeetan eman dira lizentzia gutxien. Gipuzkoa nabarmentzen da berri ere (43 lizentzia gutxiago: -%19,8), hamabi hilabeteen bostena galdu baitu. Bizkaian 85 lizentzia galdu dira (-%18,0) eta Araban 19 lizentzia galdu dira (-%9,5).

Obra handiko lizentzia gehienak, ohi bezala, birgaitze-obrei lotuta daude: ia %88 EAEn.

Beste hiruhileko batez, obra handiko lizentzia gehienak **birgaitze**-obrei dagozkie (%87,6). **Eraikuntza berrirako** lizentziak %10,9 dira, eta **eraisteko** lizentzietarako %1,5.

1. Grafikoa Obra handiko lizentzien kopurua, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2023ko 3. hiruhilekoa

(Balio absolutuak eta ehuneko bertikalak)



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2023ko 3. hiruhilekoa

Kopuru absolutuetan, urteko hirugarren hiruhilekoan 649 **birgaitze**-lizentzia eman dira, hau da, aurreko hiruhilekoan baino 310 lizentzia gutxiago (-%32,3), eta 108 lizentzia gutxiago 2022ko hirugarren hiruhilekoaren aldean (-%14,3).



Hirugarren hiruhileko honetan emandako **eraikuntza berriko** 81 lizentziek ere behera egin dute hiruhilekoetan (-%26,4; 29 lizentzia gutxiago) eta urte artekoan (-%28,9: 33 lizentzia gutxiago). Bestalde, **eraispén**-obrei lotutako lizentziak aurreko hiruhilekoan baino bat gehiago (%10,0) eta duela urtebete baino sei gutxiago (-%35,3) izan dira, eta aztertutako hiruhilekoan 11 lizentzia eman dira.

Emandako lizentzien lurralde-azterketak ñabardura txikiak egiten dizkio portaera orokor horri, kasuan kasuko lurralde historikoaren arabera.

Termino erlatiboetan, **birgaitzeko** lizentzia gehien Bizkaian eman dira (%91,2), eta gutxien Araban (%79,0). Gipuzkoako datua (%88,5) EAeko batez bestekoa (%87,6) baino ia puntu bat handiagoa da.

Arabian, **eraikuntza berriko** lizentzien kopurua nabarmendu da: lurraldeko lizentzien %18,2 dira. Gipuzkoan lizentzia mota horiek duten ehunekoaren ia bikoitza da (%10,9), eta nabarmen gaintzen du Bizkaiko ehunekoa (%7,5). **Eraisteko** lizentziek ere pisu erlatibo handiagoa dute Araban (%2,8) Bizkaian (%1,3) edo Gipuzkoan (%0,6) baino.

Hiruhilekoko bilakaerak ere ñabardurak eskaintzen ditu lizentzia motetan, lurralde historikoen arabera. **Eraikuntza berriko** lizentziak bitan jaitsi dira (-%44,2 Bizkaian eta -%29,6 Gipuzkoan; 23 eta 8 lizentzia gutxiago, hurrenez hurren) eta hirugarrenean igo: %6,5 Araban (2 lizentzia gehiago).

Bestalde, **birgaitzeko** lizentziek behera egin dute hiru lurralde historikoetan; -%47,4 Gipuzkoan (139 lizentzia gutxiago), -%28,2 Bizkaian (138 lizentzia gutxiago) eta -%18,8 Araban (33 lizentzia gutxiago).

Azkenik, **eraispén**-lizentziek gora egin dute Araban (%66,7: 2 lizentzia gehiago) eta Bizkaian (%25,0: lizentzia 1 gehiago), eta behera egin dute Gipuzkoan: 2 lizentzia gutxiago (-%66,7).

Urte arteko bilakaerari dagokionez, **birgaitzeko** lizentziek behera egin dute hiru lurraldeetan: 54 lizentzia gutxiago eman dira Bizkaian (-%13,3), 37 gutxiago Gipuzkoan (-%19,4) eta 17 gutxiago Araban (-%10,6).

Obra berriko lizentziek ere behera egin dute Bizkaian (-%50,8: 30 lizentzia gutxiago) eta Araba (-%8,3: 3 lizentzia gutxiago); Gipuzkoan, berriz, berdin mantendu dira (19 lizentzia 2022ko eta 2023ko hirugarren hiruhilekoetan).

Eraispén-lizentziek, garrantzi txikiagoa dutenez, aldaketa erlatibo garrantzitsuak izan ditzakete, baina ez dute datu absolutuaren mugimendu garrantzitsurik ekarri. Horrela, Gipuzkoan 6 lizentzia gutxiago eman dira urtebetean, hau da, %85,7ko beherakada erlatiboa izan da. Bizkaian, lizentzia 1 gutxiago eman da (-%16,7), eta Araban, berriz, lizentzia 1 gehiago (%25,0).



Ikuspegi berri batetik, antzeko azterketa egin daiteke **urteko datu metatuetan** oinarrituta. Datu horiek azken lau hiruhilekoetan emandako lizentzien guztizkoa kontabilizatzen dute (erreferentziakoa barne), aurreko urteko hiruhileko berberen urteko metatuarekin alderatuz. Beraz, hiruhileko honetan metatua 2022ko laugarren hiruhilekotik 2023ko hirugarren hiruhilekora artekoa izan da, 2021eko laugarren hiruhilekotik 2022ko hirugarren hiruhilekora metatua.

EAEn, lizentzien multzoak ia %4 egin du gora urte arteko metatuan, Gipuzkoan izandako gorakadaren ondorioz (%20 baino zertxobait gehiago).

2023ko hirugarren hiruhilekoan, metatutako azterketa horretan egiaztatu da, balio absolututan, obra handiko lizentzien kopuruak 139 unitate egin duela gora EAEn (%3,7 termino erlatiboetan), adierazi diren metatuen bolumenetan.

2. Taula Obra handiko lizentzien kopurua, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2023ko 3. Hiruhilekoan metatutako urteko datuak

(Balio absolutuak eta ehunekoa. Urteak urterako aldakuntza absolutua eta portzentajekoa)

OBRA HANDIKO LIZENTZIAK		Metatua 2022ko 4. hiruhilekotik 2023ko 3. hiruhilekora		Metatua 2021eko 4. hiruhilekotik 2022ko 3. hiruhilekora		Urteko metatuaren aldakuntza, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta	
		Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	Ald. %
Euskadi	Guztira	3.917	%100	3.778	%100	139	%3,7
	Eraikuntza berria	423	%10,8	525	%13,9	-102	-%19,4
	Birgaitzea	3.428	%87,5	3.175	%84,0	253	%8,0
	Eraispena	66	%1,7	78	%2,1	-12	-%15,4
Araba	Guztira	843	%100	835	%100	8	%1,0
	Eraikuntza berria	142	%16,8	184	%22,0	-42	-%22,8
	Birgaitzea	678	%80,4	629	%75,3	49	%7,8
	Eraispena	23	%2,7	22	%2,6	1	%4,5
Bizkaia	Guztira	1.989	%100	2.043	%100	-54	-%2,6
	Eraikuntza berria	166	%8,3	236	%11,6	-70	-%29,7
	Birgaitzea	1.800	%90,5	1.777	%87,0	23	%1,3
	Eraispena	23	%1,2	30	%1,5	-7	-%23,3
Gipuzkoa	Guztira	1.085	%100	900	%100	185	%20,6
	Eraikuntza berria	115	%10,6	105	%11,7	10	%9,5
	Birgaitzea	950	%87,6	769	%85,4	181	%23,5
	Eraispena	20	%1,8	26	%2,9	-6	-%23,1

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2023ko 3. hiruhilekoa




Hazkunde hori ez da homogenea hiru lurralde historikoetan. Nabarmentzekoa da Gipuzkoan 185 lizentzia gehiago eman direla (%20,6) eta Bizkaian 54 lizentzia gutxiago eman direla (-%2,6). Araban ere igo egin dira lizentziak (8 unitate), baina neurritsuago (%1,0).

Lizentzia motaren arabera, **birgaitzeko** obrei lotutakoak dira EAeko igoera orokorra jasan dutenak (253 lizentzia gehiago: %8,0); izan ere, **eraikuntza berriko** lizentziak (-%19,4) eta **eraiispeneoak** (-%15,4) jaitsi egin dira aztertutako aldian: 102 eta 12 lizentzia gutxiago, hurrenez hurren.

Ohikoa denez, aztertzen diren eremu geografiko guztietan, birgaitzeko ematen diren obra handiko lizentziak beste bi modalitateen gaineratik daude: %87,5 dira EAEn, %90,5 Bizkaian, %87,6 Gipuzkoan eta %80,4 Araban.

2. Grafikoa Obra handiko lizentzien kopurua, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2023ko 3. hiruhilekoan metatutako urteko datuak

(Balio absolutuak eta ehuneko bertikalak)



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2023ko 3. hiruhilekoa

Gipuzkoan, gora egin du **birgaitzeko** lizentziek (%23,5: 181 lizentzia gehiago) eta **eraikuntza berriko** lizentziek (%9,5: 10 lizentzia gehiago). Eraisteko lizentziek 6 unitate galdu dituzte (-%23,1, termino erlatiboetan).

Bizkaian ikusitako lizentzia-murrizketaren ondorioz, 70 lizentzia gutxiago eman dira **eraikuntza berriak** egiteko (-%29,7) eta 7 lizentzia gutxiago eraisteko (-%23,3). Lurraldean **birgaitzeko** 23 lizentzia gehiago eman izanak (%1,3) ez ditu konpentsatu adierazitako galerak.


Arabian, **birgaitzeko** lizentzien gorakadak (49 lizentzia: %7,8) konpentsatu egin ditu eraikuntza berriak egiteko 42 lizentzia gutxiago (-%22,8). **Eraispenekoek** unitate bat irabazi dute (%4,5).

Azken hiruhilekoan, obra handiko lizentzien beherakada areagotu egin da Euskadin, eta homogeneoki, hiru lurralde historikoetan.

Bilakaerari dagokionez, EAeko obra handiko lizentzien kopurua nabarmen jaitsi da, eta aurreko hiruhilekoan ikusitako joera-aldaketarekin jarraitu da. Urteko lehen hiruhilekoan gailurrera iritsi ondoren (1998tik izandako baliorik handiena).

2023ko utarriletik martxora erregistratutako 1.120 lizentzietatik, 1.079 lizentzia eman ziren urteko bigarren hiruhilekoan, eta egungo 741 lizentziak hirugarren hiruhilekoan. Esan bezala, azken hiruhilekoan obra handiko lizentzien ia herena galdu da (338 lizentzia gutxiago).

3. Grafikoa Obra handiko lizentzien kopuruaren bilakaera, lurralde historikoaren eta hiruhilekoaren arabera. 1998-2023



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2023ko 3. hiruhilekoa

Azken hiruhilekoko murrizketa hori hiru lurralde historikoetan egiaztatu da. Deigarriena Gipuzkoan dago (-%46,1). Bizkaian (-%29,3) batez bestekoaren antzeko jaitsiera izan da, eta Araban, berriz, beherakada neurritsuena izan da (-%13,8).



2. EMANDAKO OBRA HANDIKO LIZENTZIEN ERABILERA ¹

Bi denbora-erreferentzietako eraikuntza- eta berritze-lizentziek beherakada nabarmena izan dute bi erabileretan (bizitegietaoak eta bizitegiakoak ez direnak).

2023ko hirugarren hiruhilekoan obra handiko 730 lizentzia eman dira eraikuntza berriko eraikinak eraikitzeko (81 lizentzia) edo lehendik zeuden eraikinak birgaitzeko (649 lizentzia). Lizentzia horien bi herenak baino gehixeago (491 lizentzia; %67,3) **bizitegi-erabilerako** proiektuekin lotuta daude; gainerako herena **bizitegi-erabilerarako ez**² diren proiektuekin lotuta daude (239 lizentzia; %32,7).

3. Taula Obra handiko lizentziak, obraren helburuaren arabera. 2023ko 3. hiruhilekoa

(Balio absolutuak eta ehunekoa. Urtetik urterako aldakuntza absolutua eta portzentajekoa)

OBRA HANDIKO LIZENTZIAK	2023ko 3. hiruhilekoa		Aldakuntza aurreko hiruhilekoarekiko		Aldakuntza aurreko urteko hiruhileko berarekiko	
	Kopurua	%	Kopurua	Ald %	Kopurua	Ald %
Guztira	730	%100	-339	-%31,7	-141	-%16,2
Bizitegia	491	%67,3	-267	-%35,2	-126	-%20,4
Bizitegi bezelakoa	239	%32,7	-72	-%23,2	-15	-%5,9
• Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	7	%2,9	-11	-%61,1	-7	-%50,0
• Industria eta energia	49	%20,5	-17	-%25,8	-8	-%14,0
• Zerbitzuak	183	%76,6	-44	-%19,4	0	%0,0

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2023ko 3. hiruhilekoa

2023ko hirugarren hiruhilekoan bizitegi-erabilerarako ez diren obretarako eman diren lizentzien erabilera sektorialari dagokionez, ohi bezala, **zerbitzuen sektorerako** lizentziak dira nagusi: 183 lizentzia, bizitegi-erabilerarako ez diren lizentzia guztien %76,6.

Industriaren eta energiaren sektorerako bideratutako 49 lizentziak guztizkoaren %20,5 dira, eta gainerako %2,9 (7lizentzia) **lehen sektorearen** erabilerari eragiten diotenak.


¹ Bigarren kapitulu honetan egiten den azterketan, eraispin-lizentziak baztertu egiten dira, horiek egikaritu ondoren ez baitute inolako erabilerarik; izan ere, gerora eraikiz gero, beste lizentzia-eskaera bat izapidetu beharko litzateke.

² Erabilera mistoko eraikinak (bizitegiakoak eta bizitegiakoak ez direnak) bizitegi-erabileraren kategorian sartzen dira.



4. Grafikoa Obra handiko lizentziak, obraren helburuaren arabera. 2023ko 3. hiruhilekoa

(Balio absolutuak)



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2023ko 3. hiruhilekoa

Eraikuntza berrietarako lizentziak eta birgaitzeko lizentziak kontuan hartuta, hiruhilekoan 730 lizentzia eman dira; beraz, aurreko hiruhilekoan baino %31,7 gutxiago (339 lizentzia gutxiago) eta urte arteko konparazioan %16,2 gutxiago (141 lizentzia gutxiago). Egoera hori errepikatu egiten da, neurri handiagoan edo txikiagoan, lizentzia horien bi erabileretan.

Hiru hilean behin emandako lizentzien **bilakaerari** dagokionez, bizitegi-erabilerarako direnak 367 gutxiago izan dira (-%35,2), eta bizitegi-erabilerarako ez direnak 72 gutxiago izan dira (-%23,2).

Bizitegi-erabilerarako ez diren lizentzien beherakada hiru jarduera-sektoreetan gertatu da: termino absolutuetan, zerbitzuen sektorean 44 lizentzia gutxiago eman dira (-%19,4), industria eta energiaren sektorean 17 lizentzia gutxiago (-%25,8) eta lehen sektorean 11 lizentzia gutxiago (-%61,1).

Gauza bera gertatzen da **urte arteko alderaketan**, baina zifra apalagoekin. Bizitegi-erabilerak 126 lizentzia galdu ditu azken urtean (-%20,4), eta bizitegitarako ez den erabilerak, berriz, 15 lizentzia gutxiago (-%5,9).

Sektoreen arabera, galera lehen sektorean (7 lizentzia gutxiago: -%50,0) eta industria eta energiaren sektorean (-%14,0: 8 lizentzia gutxiago) banatu da, zerbitzuen sektoreak 2022ko hirugarren hiruhilekoko lizentzia kopuru bera jaso baitu.



Urte arteko metatuari dagokionez, bizitegi-erabilerarako ez diren lizentzien kopuruaren igoerak nabarmen gainditzen du bizitegi-erabilerarako diren lizentzien artean hautemandako beherakada. Guztira, %4ko igoera erregistratu da.

2022ko laugarren hiruhilekotik 2023ko hirugarren hiruhilekora **metatutako urte arteko kopuruak** aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuz gero, datuak 151 lizentziako igoera erakusten dute, hau da, %4,1eko igoera.

Gorakada hori bizitegi-erabilerarako ez diren lizentzien artean izandako gorakadak eragin du (214 lizentzia gehiago: %23,1 termino erlatiboetan), bizitegi-erabilerarako erabiltzen diren 63 lizentziak nabarmen konpentsatzen baititu (-%2,3).

Era berean, bizitegi-erabilerarako ez diren lizentzien gorakada zerbitzuen sektorerara bideratutako lizentzien gorakadak eragin du (155 lizentzia gehiago: %23,2), baita industriaren eta energiaren sektorerara bideratutakoak ere (70 lizentzia gehiago: %36,6). Lehen sektorean, urteko lizentzia metatuen konparazioan, 11 lizentzia gutxiago eman dira (-%16,4).

4. Taula Obra handiko lizentziak, obraren helburuaren arabera. 2023ko 3. hiruhilekoan metatutako urteko datuak

(Balio absolutuak eta ehunekoa. Urtetik urterako aldakuntza absolutua eta portzentajekoa)

OBRA HANDIKO LIZENTZIAK	Metatua 2022ko 4. hiruhilekotik 2023ko 3. hiruhilekora		Metatua 2021eko 4. hiruhilekotik 2023ko 3. hiruhilekora		Urteko metatuaren aldakuntza, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	Ald. %
Guztira	3.851	%100	3.700	%100	151	%4,1
Bizitegia	2.712	%70,4	2.775	%75,0	-63	-%2,3
Bizitegiak bestelakoa	1.139	%29,6	925	%25,0	214	%23,1
• Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	56	%4,9	67	%7,2	-11	-%16,4
• Industria eta energia	261	%22,9	191	%20,6	70	%36,6
• Zerbitzuak	822	%72,2	667	%72,1	155	%23,2


Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2023ko 3. hiruhilekoa



Edonola ere, analisiaren hiruhilekoari dagokion metatuan, ohi bezala, bizitegi-erabilerarako lizentziak dira nagusi (%70,4) bizitegi-erabilerarako ez direnak baino (%29,6), eta, azken horien artean, zerbitzu-sektorerako obretarako lizentziak: bizitegi-erabilerarako ez diren lizentzien zenbaketaren %72,2 (822 lizentzia).

5. Grafikoa Obra handiko lizentziak, obraren helburuaren arabera. 2023ko 3. hiruhilekoan metatutako urteko datuak

(Balio absolutuak)



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2023ko 3. hiruhilekoa



3. AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZAK, EMANDAKO OBRA HANDIKO LIZENTZIEN ARABERA

Aurreko hiruhilekoaren aldean, beherakada handia bizitegi-erabilerarako obra handiko lizentzien eraginpean dauden etxebizitzaren kopuruan. Ikusitako urte bati dagokionez, nolabaiteko hazkundera ikusten da.

Bizitegi-erabilerarako obra handiko 491 lizentzia eman ziren EAEn 2023ko hirugarren hiruhilekoan, eta 1.250 etxebizitzarekin lotutako jarduerak izan ziren. Horietatik ia %81 (1.010 etxebizitza) eraikuntza berriko³ jarduketekin lotzen dira, eta gainerako %19a (240 etxebizitza) birgaitze-prozesu⁴ batekin lotzen dira.

5. Taula Aurreikusitako etxebizitzak, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2023ko 3. hiruhilekoa

(Hiruhilekoko balio absolutuak eta ehuneko bertikalak. Aldakuntza absolutua eta portzentajekoa, aurreko hiruhilekoarekin eta aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta)

AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZEN KOPURUA		2023ko 3. hiruhilekoa		Aldakuntza aurreko hiruhilekoarekiko		Aldakuntza aurreko urteko hiruhileko berarekiko	
		Kopurua	%	Kopurua	Ald %	Kopurua	Ald %
Euskadi	Guztira	1.250	%100	-792	-%38,8	101	%8,8
	Eraikuntza berria	1.010	%80,8	-625	-%38,2	188	%22,9
	Birgaitzea	240	%19,2	-167	-%41,0	-87	-%26,6
Araba	Guztira	536	%100	131	%32,3	302	%129,1
	Eraikuntza berria	469	%87,5	145	%44,8	303	%182,5
	Birgaitzea	67	%12,5	-14	-%17,3	-1	-%1,5
Bizkaia	Guztira	351	%100	-811	-%69,8	-351	-%50,0
	Eraikuntza berria	258	%73,5	-754	-%74,5	-272	-%51,3
	Birgaitzea	93	%26,5	-57	-%38,0	-79	-%45,9
Gipuzkoa	Guztira	363	%100	-112	-%23,6	150	%70,4
	Eraikuntza berria	283	%78,0	-16	-%5,4	157	%124,6
	Birgaitzea	80	%22,0	-96	-%54,5	-7	-%8,0

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2023ko 3. hiruhilekoa

³ Zehaztu behar da inplikaturako **eraikuntza berriko etxebizitzaren** kopuruak gorabehera handiak izan ditzakeela hiru hilean behin, sustapenen tamainaren arabera.

⁴ **Birgaitutako etxebizitzak** zenbatzean, ez dira kontuan hartzen etxebizitza bat baino gehiago duten eta eraikinaren elementu komunei soilik eragiten dieten birgaitze-obrak egiten dituzten eraikinetako etxebizitzak. Birgaitutako etxebizitzak zenbatzean, honako esku-hartze hauek bakarrik hartzen dira kontuan: familia bakarreko eraikinen edo etxebizitzaren birgaitze integralak eta etxebizitza bat baino gehiagoko eraikin baten barruan bao bat edo batzuk (etxebizitzak) birgaitzea (azken kasu horretan, garatutako banantze- edo bat-egite-prozesuen ondoriozko etxebizitza-kopurua hartzen da kontuan).




Beste hiruhileko batez, **eraikuntza berriak** behar dituzten lizentziei lotutako etxebizitzak nagusi direla egiaztatatu da.

Lurralde historikoen arabera, Araban eraikuntza berriko etxebizitzaren pisu erlatiboa (%87,5: 469 etxebizitza) EAeko batez bestekoa (%80,8) baino ehuneko zazpi puntu handiagoa da. Gipuzkoako (%78,0: 283 etxebizitza) edo Bizkaiko (%73,45: 258 etxebizitza) pisu erlatiboa batez besteko horren azpitik dago.

6. Grafikoa Aurreikusitako etxebizitzak, obra-motaren eta lurralde historikoen arabera. 2023ko 3. hiruhilekoa

(Balio absolutuak eta ehuneko bertikalak)



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2023ko 3. hiruhilekoa

2023ko hirugarren hiruhilekoko 1.250 etxebizitza horietan 792 etxebizitza galdu dira (-%38,8) bigarren hiruhilekoko etxebizitzaren aldean, eta 101 etxebizitza gehiago (%8,8) 2022ko hirugarren hiruhilekoaren aldean.

Hiruhileko alderaketan, bi obra motetako etxebizitzaren kopuruak behera egin du. Eraikuntza berriko etxebizitzak 625 gutxiago dira (-%38,2) eta birgaitu beharreko etxebizitzak 167 gutxiago (-%41,0).

Beharakada garrantzitsu hori, batez ere, Bizkaiko lurralde historikoan gertatu da, 811 etxebizitza gutxiago zenbatu baitira (-%69,8) duela hiru hilabeteren aldean: 754 etxebizitza gutxiago eraiki dira (ia lautik hiru: -%74,5), eta 57 etxebizitza gutxiago (-%38,0) birgaitu beharreko etxebizitzaren artean.

Gipuzkoan ere beherakada txiki bat ikusten da, guztira, etxebizitzaren kopuruan (112 etxebizitza gutxiago: -%23,6), batez ere birgaitzeko etxebizitzetan (96 etxebizitza gutxiago, -%54,5). Jaitsiera apalagoa izan da etxebizitza berrietan: 16 etxebizitza gutxiago (-%5,4).



Arabako lurraldean nolabaiteko aldaketa ikusten da dinamika horretan. Birgaitu beharreko 14 etxebizitza gutxiago kontabilizatzea (-%17,3), aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, nahikoa konpentsatu da eraikuntza berriko 145 etxebizitza gehiago egotearekin (%44,8), hiruhilekoan saldo positiboa lortzeko: 131 etxebizitza (%32,3) obra handiko lizentzien eraginpean.

Urte arteko ikuspegitik egindako azterketan, aurreratu da ia %9ko hazkundera izan dela obra handiko lizentzien eraginpean dauden etxebizitzaren gutzitza, EAEn. Igoera hori gertatu da oin berriko etxebizitzaren artean 188 etxebizitza gehiago egin direlako (%22,9ko igoera erlatiboa); izan ere, birgaituko diren etxebizitzak %26,6 jaitsi dira (87 etxebizitza gutxiago), izazko hirugarren hiruhilekoaren aldean.

Lurralde historikoen arabera, Bizkaian bakarrik izan dira beherakadak bi obra motetan: 272 etxebizitza gutxiago eraikuntza berrikoetan (-%51,3) eta 79 etxebizitza gutxiago birgaitzekoetan (-%45,9). Duela urtebeteko etxebizitzaren erdiak zenbatu dira (351 etxebizitza gutxiago).

Arabako eta Gipuzkoako lurraldeek antzeko jokabideak izan dituzte: birgaitzeko etxebizitzaren galera txikia izan da, eta eraikuntza berrikoen artean gorakada handia izan da.

Gipuzkoan 150 etxebizitza gehiago zenbatu dira azken urtean (%70,4), eraikuntza berriko 157 etxebizitza gehiago izan baitira (%124,6), birgaitzekoak diren 7 etxebizitzak baino askoz gehiago (-%8,0).

Arabako egoerak 302 etxebizitza gehiago (%129,1) islatzen ditu eraiki beharreko etxebizitza berriengatik (303 etxebizitza gehiago: %182,5); izan ere, birgaitu beharreko etxebizitzak duela urtebete baino bat gutxiago dira (-%1,5).

Aurreikusitako etxebizitzaren kopuruan hiru hileroko gorabehera handiak daudenez, komenigarria da azterketa emaitzen **urteko dinamika metatuan** zentratzea.



Urte arteko kopuru metatuei dagokienez, Euskadin aurreikusitako etxebizitza-kopuruak gora egin du, Arabako eta Gipuzkoako igoerei esker.

2023ko hirugarren hiruhilekora arte metatutako bizitegi-erabilerarako urteko jarduera, EAE osoan, 6.895 etxebizitzari eragiten dieten jarduketetan kokatzen da: %79,2 (5.459 etxebizitza) eraikuntza berrikoak dira, eta %20,8 (1.436 etxebizitza) birgaitzeko.

Etxebizitza-bolumen hori aurreko hamabi hilabeteetako metatua baino 747 etxebizitza gehiago da (%12,2). Eraikuntza berriko etxebizitzaren artean izandako %16,6ko hazkundeak (777 etxebizitza gehiago) birgaitzea xede duten 30 etxebizitzaren galera (-%2,0) konpentsatzen du.

6. Taula Aurreikusitako etxebizitzak, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2023ko 3. hiruhilekoan metatutako urteko datuak

(Balio absolutuak eta ehunekoa. Urteik urterako aldakuntza absolutua eta portzentajekoa)

AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZA KOPURUA		Metatua 2022ko 4. hiruhilekotik 2023ko 3. hiruhilekora		Metatua 2021eko 4. hiruhilekotik 2022ko 3. hiruhilekora		Urteko metatuaren aldakuntza, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta	
		Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	Ald. %
Euskadi	Guztira	6.895	%100	6.148	%100	747	%12,2
	Eraikuntza berria	5.459	%79,2	4.682	%76,2	777	%16,6
	Birgaitzea	1.436	%20,8	1.466	%23,8	-30	-%2,0
Araba	Guztira	1.581	%100	1.418	%100	163	%11,5
	Eraikuntza berria	1.271	%80,4	1.161	%81,9	110	%9,5%
	Birgaitzea	310	%19,6	257	%18,1	53	%20,6
Bizkaia	Guztira	2.977	%100	3.240	%100	-263	-%8,1
	Eraikuntza berria	2.388	%80,2	2.477	%76,5	-89	-%3,6
	Birgaitzea	589	%19,8	763	%23,5	-174	-%22,8
Gipuzkoa	Guztira	2.337	%100	1.490	%100	847	%56,8
	Eraikuntza berria	1.800	%77,0	1.044	%70,1	756	%72,4
	Birgaitzea	537	%23,0	446	%29,9	91	%20,4

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2023ko 3. hiruhilekoa



Lurralde historikoei dagokienez, Gipuzkoak hazkunde handia izan du etxebizitzaren bolumenean (847 etxebizitza gehiago: %56,8), eta, batez ere, eraikuntza berriaren igoeran islatu da (%72,4: 756 etxebizitza gehiago). Birgaitzeko etxebizitzak %20,4 hazi dira (91 etxebizitza gehiago).


Araba ere hazi egin da bi obra motetan: %7,5 etxebizitza berrietan (110 etxebizitza gehiago) eta %20,6 birgaitu beharreko etxebizitzetan (53 etxebizitza); beraz, lurraldeak 163 etxebizitza gehiago ditu (%11,5).

Bizkaiko lurraldeak bakarrik du bilakaera negatiboa. Lurraldearen saldoa 263 etxebizitza gutxiagotan zehazten da (-%8,1), etxebizitza berrien artean %3,6 galdu baita (89 etxebizitza gutxiago), eta zaharberitutakoen artean %22,8 (174 etxebizitza gutxiago).

Metatutako azterketan ere ikus daiteke eraikuntza berriko obra-lizentziei lotutako etxebizitzak direla nagusi. EAEko batez bestekoa (%79,2) Arabaren (%80,4) eta Bizkaian (%80,2) gainditzen da eta ehuneko bi puntu azpitik geratzen da Gipuzkoan (%77,0).

7. Grafikoa Aurreikusitako etxebizitzak, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2023ko 3. hiruhilekoan metatutako urteko datuak

(Balio absolutuak eta ehuneko bertikalak)



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2023ko 3. hiruhilekoa



4. ALDERDI METODOLOGIKOAK

Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika zentsu-eragiketa bat da, eta EAeko 251 udalek hilerio bidaltzen dute haren informazioa. Hilerio bidaltzen den informazioa udalerrian emandako obra handiko lizentziei eta udalak etxebizitza babestuen sustatzeko lurzorua erosteari buruzkoa da. Aldi berean, urtero, alokairuko etxebizitzaren parkeari buruzko informazioa jasotzen da, udalak eskuragarri duena.

Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistikaren (EEEE) helburu orokorra Euskal Autonomia Erkidegoan zenbat, zer eta non eraikitzen den, birgaitzen eta ezabatzen den jakitea da. Udalek emandako obra handiko lizentzietatik abiatuta, obraren ezaugarri nagusiak (oin berria, birgaitzea edo eraistea), eraikinaren erabilera eta kaltetutako etxebizitzak ezagutu nahi dira.

Definizioak:

Obra Handiko Lizentzia (LOM): Obra handiko lizentzia bat obra handiak egiteko baimena ematen duen baimen bat da, eta toki-administrazio eskudunak ematen du eraikin berriak egiteko, eraitsi edo birgaitzeko edozein eratako lanak egiteko, bizitegiak izan zein ez. Lizentzia-eskaera hirigintza-araudian ezarritakora egokitzen dela egiaztatzea du helburu.

Ondorio horietarako, honako hauek hartzen dira obra handitzat:

- a. **Eraikuntza berriko obra:** Eraikin berri bat sortzen duen obra handi mota da, aurretik beste eraikin bat erabat eraitsi den edo ez kontuan hartu gabe. Eraikina bizitegi-erabilerarako edo ez bizitegi-erabilerarako erabil daiteke.
- b. **Birgaitze-obra:** Aurrekoan ez bezala, eraikin berri bat egitea eragiten ez duen obra handi mota da, baizik eta dagoeneko eraikita daudenei eragiten diena, eraispen partzialak egon diren ala ez kontuan hartu gabe.

Obran kontuan hartutako eraikina bizitegi-erabilerarako edo ez bizitegi-erabilerarako erabil daiteke.

Birgaitze-obra bat obra handitzat jotzeko, beharrezkoa da arkitekto batek edo antzeko batek ikus-onetsitako proiektu tekniko bat egitea. Proiektu tekniko horrek nahitaezko betekizuna izan behar du lizentzia emateko aurkeztu beharreko dokumentazioan. Obra txikiko lizentziazat hartuko dira baldintza hori betetzen ez dutenak.



Obra mota hau bi motatakoa izan daiteke:

- Handitze-obra: Dagoeneko eraikita dagoen azalera handitzen denean, egiturazko elementu berriak gehitzearen ondorioz. Igoera hori bertikalki egin daiteke, lursailean okupatutako azalera handitu gabe (adibidez, oin berri bat gehitu gabe) edo horizontalki, eta kasu horretan badago lursailean gehitu beharreko azalera.
- Eraberritze- eta/edo zaharberritze-lanak: Eraikitako azalera aldatzen ez denean baina eraikinak egiturazko elementuren bati eragiten dioten aldaketak dituen edo lehendik ez zegoen dotazioren bat ezartzen denean.

Atal honetan jasotako birgaitzeko obra handiak hainbat eremutakoak izan daitezke. Ohikoenak zehazten dira:

- Lehendik dauden eraikinak handitzea, horiek jasotzea edo azalera gehiago okupatzea badakar.
- Igogailuak edo antzekoak instalatzea.
- Fatxada eta/edo teilatua osorik birgaitzea
- Merkataritza-lokalaren erabilera etxebizitzara aldatzea
- Eraikinaren egitura-aldaketak behar dituzten etxebizitza edo lokal baten edo batzuen barne-egokitzapena.
- Etxebizitza baten edo batzuen bereizketa edo bat-egitea.
- Beren konplexutasunagatik edo garrantzi teknikoagatik edo garrantzi ekonomikoagatik eskumena duen sailak obra handitzat jotzen dituen eraberritze-obrak.

c. **Eraispen-obra:** Eraikin bat osorik edo zati batean eraistea.